

Denbora-pasa

Gure etxe ondoko zinematokian ezagutzen gaituzte, edo bistaz behintzat. Aspaldi honetan sarritan joan gara, bai, gure seme txikietako bat elbarritzen ari baita. Oinez egitea gero eta zailago zaio, eta zinema, antzerkiarekin batera, gogokoen duen denbora-pasetakoa da.

Duela gutxi joan ginen bere gurpil-aulkia eroatera, kirurgia egiten ez dioten bitartean, sikiera, mugitu ahal izateko. Asko gustatu zaio berari tramankulua, eta egiten ari den egokitze prozesuaren barruan aurrerapauso inportantea izan da, dudarik gabe. Hauxe da, hain zuzen ere, ni harrituena naukana: zein egokiro ari den gure mutikoa minari, ezinari eta muga berriei baiezkoa esaten. Gu geu baino askoz arinago, noski. Horri esker ari gara geu ere hobeto kudeatzen bere egoerak sortu dizkigun hainbat trago mikatz. Esate baterako, gure kiroldagian aurkitu dugun maisu berezi batekin igeriketako eskolak hartzen utzi ez digutenean. Bertan euren monitoreek beste inork ez dituelako ematen, eta Asierri ezin diote eman, espezialistak ez direlako. Edo zinematokian bertan haurra lepoan eraman behar izatea, bere aulkiarekin sartuz gero, atzeko lerroetako toki egokian bakarrik gelditu behar dugulako.

Eguberrien inguruan gurean estreinatu diren hainbat haur film ikustera horrela joan gara, haurra arrekikilian hartuta, eta ezinegon bezalako bat gelditu zait soinean, filmok ikusi ostean.

Kanpai hots handiekin zetozen batzuk: estreinatu behar zirela nahitaez jakin dugun horiek film amerikarrak izan dira beti bezala. Irudi errealekoak eta aktore ezagunekin batzuk, animazio pertsonaiak nahastuta dituzten besteak eta animazio huts-hutsa oinarri dutenak. Azken hauetan 3D delako teknika nagusi izan da. Lehenengo paketeetan sartzen dira ikusleria nerabearentzako filmak, eta ama begietatik ikusi-




INIGO AZKONA

ta apur bat mingarri suertatzen zaizkit honako hauek: bizar zuri inpresentablea, umezain matxistak, maitagarri gozolarrosegia, heroi bortitzak eta ohiko bilakatu diren pertsonaia ustez barregarriak, baina original edo berriak ez diren neurrian aspergarriak direnak. Hauetako eta bestelako filmetan, askotan animaliak dira kondairak betetzeko erabilienak: erleak, arratoiak, katagorriak, hartz polarrak edo jostailu itxura dutenak; antzinako fabulen harian oso ahul eutsita. Aipatutako beste pertsonaia horien modura portatzen dira, nahiko era gorrotagarri, historiko eta kompetitiboan.

Horietan guztietan azpimarratu daiteke, ordea, gidoi trinko umoretsua, erritmo ona eta efektu bereziekin gauza harrigarrienak sinestarazteko kapazak direla egileak. Alabaina, guztietan ikusten da modu entretenigarrian soilik burutu direla, kontsumo arinerako produktuak direla, arin borrazten direla ikuslearen memoriatik, eta baten edo besteren kasuan amaiera biribildu gabe ekarri dutela. Laster bigarren parte saldu behar digutenez, bada, ez die merezi nonbait lehena guztiz amaitzea, eta puntu suspentsibotan utzi dute.

Europar egindako animazio film batzuk ere izan ditugu ikusgai. Hauek ere animaliez eta jostailuez beteak, eta arestian aipatutako teknikak lortzeko gertu egon arren, gurean zen pertsonaien auto-kontrola, barne begirada, gorputzaren espresioa aurpegikoen eta hitz jarioen kaltean. Hau guztia alde batera utzi genuenetik, amerikarren lan historioikoak imitatzen hasteko, bada, haien atzetik jarraitzen dugu, inolako emoziorik eroateko kapazak ez garela, hutsalak eta galduak, eta batzuetan lau-lauak, euskaraz estreinatu den bakarrean bezala. ■



«
Ama begietatik ikusita apur bat
mingarri suertatzen zaizkit honako
hauek: bizar zuri inpresentablea,
umezain matxistak, maitagarri
gozolarrosegia, heroi bortitzak eta
ohiko bilakatu diren pertsonaia
ustez barregarriak
»